

# FANT

30 | BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA
FESTIVAL DE CINE FANTÁSTICO DE BILBAO
BILBAO FANTASY FILM FESTIVAL

# + FANT

## JARDUERA OSAGARRIAK
## ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

Bilbao

fantbilbao.eus

# ERAKUSKETAK
## EXPOSICIONES


BILBOTIK KALIFORNIARA: UN JOVEN ILUSTRADOR BILBAÍNO EN DC COMICS 4

30 FANTARTISTAS 11

TOLKIEN-EN MUNDUAK: HOBBITON LURRALDEA EZAGUTUZ 13

ROBOT DREAMS: AMETS BAT MARRAZTEN / DIBUJANDO UN SUEÑO 14


# PROIEKZIOAK
## PROYECCIONES


CALABACÍN-EN BIZITZA 6

SOMNIA. DENTRO DE TUS SUEÑOS 8

LO QUE HACEMOS EN LAS SOMBRAS 9

EARWIG 10

DILILI PARISEN 12


# HITZALDIA
## CHARLA


KOMIKIAK MINTZAGAI. JON MIKEL BAÑALES BORJA CRESPOREKIN SOLASEAN
HABLEMOS DE TEBEOS. JON MIKEL BAÑALES EN CONVERSACIÓN CON BORJA CRESPO 5


# MUSIKA
## MÚSICA


SESIÓN ZOMBIE SAIOA: LOURDES MADOW DJ 11

KONTZERTUA / CONCIERTO: SKIMALES KRUEGER PARTY 15

AMAIERAKO JAIA / FIESTA DE CLAUSURA: SAIO FANTASTIKOA: TXUMARI DIYEIS 19


# BESTEAK
## OTROS


FANT&ROLA: AMETSAK ETA AMETSGAIZTOAK: ROL JOKOAK 7

TAILERRA / TALLER: APOKALIPSI KLIMATIKOA: ZINEMAREN BIZIRAUPENERAKO ESKULIBURUA / APOCALIPSIS CLIMÁTICO: MANUAL DE SUPERVIVENCIA DE CINE 16

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN: ASIAN FANTASTIC MAGAZINE 17

PITCH-A / PITCH 19


**“EARWING” PROIEKZIOA IZAN EZIK, JARDUERA GUZTIAK DOAKOAK ARETOA BETE ARTE.**

**ACTIVIDADES GRATUITAS HASTA COMPLETAR AFORO, SALVO PROYECCIÓN DE “EARWING”.**

# ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN:

## BILBOTIK KALIFORNIARA: UN JOVEN ILUSTRADOR BILBAÍNO EN DC COMICS




**Apirilak 15 - Maitazak 10**
**15 Abril - 10 Mayo**

**Centro Municipal *Barrainkua* Udaltegia**

**Apirilak 17 Abril**
**20:00-20:30**

Bisita gidatua / Visita guiada.

Komiki-formatu eta -eredu asko daude: lerro argiko komiki europarra, superheroien komiki amerikarra eta Japoniako manga komikiak, besteak beste. Erakusketa honetan, Jon Mikelek superheroien komiki-eredu amerikarrerako egindako lana egongo da ikusgai, batez ere DC COMICS argitaletxerako marraztutako pertsonaien irudiak: Batman, Green Arrow, Harley Quinn, Joker, Shazam...

Komikietatik ateratako orrien ondoan, pertsonaien zirriborro batzuk ere egongo dira ikusgai.

Existen muchos formatos y modelos de cómics: el cómic europeo de línea clara, el americano de superhéroes y el manga japonés, entre otros. En esta exposición, se muestra el trabajo de Jon Mikel para el modelo americano, el cómic de superhéroes, con especial atención a los personajes dibujados para la editorial DC COMICS: Batman, Green Arrow, Harley Quinn, Joker, Shazam y otros.

Junto a páginas extraídas de algunos cómics, se añaden bocetos de personajes.



# HITZALDIA / CHARLA:

## KOMIKIAK MINTZAGAI. JON MIKEL BAÑALES BORJA CRESPOREKIN SOLASEAN / HABLEMOS DE TEBEOS. JON MIKEL BAÑALES EN CONVERSACIÓN CON BORJA CRESPO





**Apirilak 17 Abril - 19:00**

**Centro Municipal *Barrainkua* Udaltegia**

*Komikiak mintzagai. Jon Mikel Bañales Borja Cresporekin solasean* hitzaldiak, komikiaren mundua publikoari hurbiltzea du helburu, sektoreko bi profesionalen eskutik. Jon Mikelek eta Borjak komikiaren egungo egoera eta bere alderdi, teknika eta lan-eredu desberdinak aztertuko dituzte, bereziki Estatu Batuetako kasua eta superheroien gaia kontuan hartuta, Jon Mikel Bañales "DC Comics"-en egindako lanari esker espezializatu baita gai horretan.

Ondoren, 20:00etan, Jon Mikel Bañalesek "Bilbotik Kaliforniara: un joven ilustrador bilbaíno en DC Comics" erakusketara bisita gidatua egingo du.

La charla *Hablemos de tebeos. Jon Mikel Bañales en conversación con Borja Crespo* propone acercar al público el mundo del cómic de la mano de dos profesionales del sector. Jon Mikel y Borja abordarán la situación actual del cómic y sus diferentes vertientes, técnicas y modelos de trabajo, atendiendo en especial al caso estadounidense y a la temática de superhéroes, en el que Jon Mikel Bañales se ha especializado gracias a su trabajo en "DC Comics".

Posteriormente, a las 20:00, Jon Mikel Bañales ofrecerá una visita guiada por la exposición "Bilbotik Kaliforniara: un joven ilustrador bilbaíno en DC Comics".

**Jon Mikel Bañales**

Arte Ederretan Graduatua, Euskal Herriko Unibertsitatean. Komikigintzan eta ilustrazioan espezializatua. 2021etik, komikigile gisa lan egiten du komiki amerikarraren merkaturako, "DC Comics" zigiluko pertsonaia enblematikoak protagonista dituzten serieetan, hala nola Batman, Harley Quinn, Joker eta beste batzuk.

**Borja Crespo**

Zinemako zuzendaria eta ekoizlea, idazlea, preskriptorea, komikigilea, erakusketen komisarioa, irakaslea eta herri-kulturan aditua. Hainbat erreferentzia marraztu, gidoi egin eta editatu ditu, eta estatuko hedabidearen dibulgatzaile nagusietako bat izan da, teoriko eta kultura-kudeatzaile gisa. Gaur egun, edukien zuzendaria eta aholkulari globala da *Comic Barcelonan,* eta *Tracking Bilbao* diziplina anitzeko jaialdia zuzentzen du, bai eta komiki independenteari eta autoedizioari eskainitako GRAF ere. Getxoko Komiki Azokako zuzendari artistikoa ere bada.

**Jon Mikel Bañales**

Graduado en Bellas Artes por la Universidad de País Vasco. Especializado en cómic e ilustración. Desde 2021, trabaja como historietista para el mercado del cómic americano, en series protagonizadas por personajes emblemáticos del sello "DC Comics" como Batman, Harley Quinn, Joker y otros.

**Borja Crespo**

Director y productor cinematográfico, escritor, prescriptor, historietista, comisario de exposiciones, docente y experto en cultura popular. Ha dibujado, guionizado y editado varias referencias, siendo uno de los máximos divulgadores del medio en el estado, como teórico y gestor cultural. Actualmente, es director de contenidos y asesor global en *Comic Barcelona* y dirige el festival multidisciplinar *Tracking Bilbao* y la cita de su creación GRAF, dedicada al cómic independiente y la autoedición. Es también director artístico en el Salón del Cómic de Getxo.

# PROIEKZIOA:
# CALABACÍN-EN BIZITZA




**Apirilak 25 Abril - 17:30**

**Centro Municipal *Barrainkua* Udaltegia**

**Suitza, 2016 / 66’ / Claude Barras**

Jatorrizko bertsioa euskarazko azpitituluekin.
Versión original con subtítulos en euskera.

7 urtetik gorakoentzat.
Apta para mayores de 7 años.

Courgette (“Kalabazin”) izen arraroa da 9 urteko mutiko batentzat; bere historia zeharo unibertsala da, ordea. Bere ama bat-batean hil ondoren, polizia atsegin baten lagun egin da Courgette: Raymond du izena, eta joan beharko duen harrera-etxera lagunduko dio, bere adineko beste mutiko batzuekin bizitzera. Hasieran, ahalegînduko da giro arrotz eta kontrako horretan moldatzen, baina Raymonden eta bere lagun berrien laguntza behar izango du besteak maitatzen eta haiengan konfiantza izaten ikasteko.

Courgette (“Calabacín”) es un nombre extraño para un niño de 9 años, aunque su historia es sorprendentemente universal. Tras la repentina muerte de su madre, Courgette se hace amigo de un amable policía, Raymond, que lo acompaña a su nuevo hogar de acogida, donde viven otros niños y niñas de su edad. Courgette lucha al principio por adaptarse al extraño y hostil ambiente. Con la ayuda de Raymond y de sus nuevas amigas y amigos, aprenderá a amar y a confiar en el prójimo.



# FANT&ROLA:
# AMETSAK ETA AMETSGAIZTOAK: ROL JOKOAK
## (EUSKARAZ)



**Apirilak 26 Abril: 16:00-18:30**
**Apirilak 27 Abril: 10:00-13:00 + 16:00-18:30**

**La Perrera-Konekta**

*Rolariak Kultur Elkartearen* eskutik, eta aurtengo FANT jaialdiaren karteleko Freddy Krueger aitzakia hartuta, fantasia, beldur eta zientzia fikziozko ametsetako sei mundutan murgilduko gara apirilaren 26 eta 27an Bilboko *La Perrera-Konekta* gunean.

Ostiral arratsaldean (16:00-18:30) bi rol partida eskainiko ditugu, beste bi larunbat goizean (10:30-13:00) eta azken biak larunbat arratsaldean (16:00-18:30).

Mahai bakoitzean 6 jokalarira arteko lekua izango dugu, eta euskaraz jokatzeko rol joko eta unibertso ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu maizter edo zuzendari ezberdinen eskutik. Partida guztietan beldurrezko elementuak egongo ez diren arren -azken batean ez dira denak amets txarrak, amesten dugunean- 18 urtetik gorakoentzako gomendagarriak dira.

De la mano de *Rolariak Kultur Elkartea*, y tomando como referencia a Freddy Krueger, protagonista del cartel del Festival FANT de este año, nos adentraremos en seis mundos de fantasía, miedo y sueños de ciencia ficción los días 26 y 27 de abril en el espacio *La Perrera-Konekta.*

El viernes por la tarde (16:00-18: 30) ofreceremos dos partidas de rol, otras dos el sábado por la mañana (10:30-13: 00) y las dos últimos el sábado por la tarde (16:00-18: 30).

En cada mesa tendremos un espacio para 6 personas, y tendremos la oportunidad de conocer diferentes juegos de rol y universos para jugar en euskera de la mano de diferentes directores. Aunque no habrá elementos de terror, todas las partidas -al fin y al cabo, no todos son malos sueños cuando soñamos- son recomendadas para mayores de 18 años.

*** Parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea.**

*** Para participar será necesario inscribirse.**

## PROIEKZIOA / PROYECCIÓN:

# SOMNIA. DENTRO DE TUS SUEÑOS

*(BEFORE I WAKE)*




**Apirilak 26 Abril - 18:45**

**La Perrera-Konekta**

**AEB - EE. UU., 2017 / 97' / Mike Flanagan**

Jatorrizko bertsioa euskarazko eta gaztelerazko azpitituluekin.

Versión original con subtítulos en euskera y castellano.

12 urtetik gorakoentzat gomendatua.

Recomendada para mayores de 12 años.

Jessiek eta Markek Cody adoptatzea erabaki dute, lo egiteko beldur den haurra. Hasiera batean, fobia horren jatorria mutilaren iragan traumatikoan dagoela uste dute. Baina laster konturatuko dira egiaz: Codyren ametsak errealitatean proiektatzen dira, eta askotan gauzatzen dena amesgaizto izugarri eta hilgarriak dira. Familia salbatzeko, Jessiek eta Markek haurraren ametsetan zer gordetzen den jakin beharko dute.

Jessie y Mark deciden adoptar a Cody, un niño a quien le aterroriza dormir. Inicialmente creen que el origen de dicha fobia está en el traumático pasado del chico. Pero pronto se dan cuenta de la verdad: los sueños de Cody se proyectan en la realidad, y muchas veces lo que se materializa son horribles y letales pesadillas. Para salvar a su familia, Jessie y Mark deberán descubrir qué se encierra bajo los sueños del pequeño.



## PROIEKZIOA / PROYECCIÓN:

# LO QUE HACEMOS EN LAS SOMBRAS

*(WHAT WE DO IN THE SHADOWS)*




**Apirilak 27 Abril - 18:45**

**La Perrera-Konekta**

**Zelanda Berria - Nueva Zelanda, 2014 / 86' / Taika Waititi, Jemaine Clement**

Jatorrizko bertsioa euskarazko eta gaztelerazko azpitituluekin.

Versión original con subtítulos en euskera y castellano.

16 urtetik gorakoentzat gomendatua.

Recomendada para mayores de 16 años.

Viagok 379 urte ditu. Vladislavek, 862. Deaconek, 183 besterik ez. Baina Petyr, Petyr da nagusi: 8.000 urte! Lauak pisu batean bizi dira Wellingtonen, Zelanda Berrian eta dokumental faltsu honen protagonistak dira. Filma etxe bateko eguneroko errutinak ekar ditzakeen arazoei buruz mintzo da, batez ere odol-xurgatzailea bazara eta azkarrenen, aberatsenen edo ondoen jantzitakoen artean ez bazaude (hau da, ez zara ez Louis ez Lestat). Gizagaixo batzuk besterik ez dira eta argi eta garbi erakusten dute zergatik beste izaki ikaragarri batzuk (zonbiak eta otsogizonak) gailentzen zaizkien pantailan eta ziberespazioan. Sundancen estreinatu zen eta "Anemikoa" dela uste izan zuten batzuek, baina gehiengoak barre egin zuen. Milaka like dituzte facebooken eta Vlad Paldoztatzailearen erretratu batek presiditzen du.

Viago tiene 379 años. Vladislav, 862. Deacon, solo 183. Pero Petyr, Petyr les gana a todos de largo: ¡8.000 años! Los cuatro comparten piso en Wellington, Nueva Zelanda. Todos son protagonistas de este falsísimo documental sobre cuán problemática puede ser la rutina diaria de una casa si eres un chupasangre y no precisamente de los más listos, los más ricos o los mejor vestidos (es decir, no eres ni Louis ni Lestat), sino unos pobres diablos que (de)muestran bien a las claras por qué otras criaturas infernales (léase zombis y hombres lobo) les están ganando la partida en la pantalla y el ciber espacio. El film, dirigido por Viago y Vladislav, se estrenó en Sundance. Algunos lo consideraron "anémico", pero la mayoría rió. Tienen miles de likes en su facebook y lo preside un retrato de Vlad el Empalador.

# PROIEKZIOA / PROYECCIÓN:

# FANT&FAS: EARWIG



**Apirilak 30 Abril - 19:45**

**Salón *El Carmen* Aretoa**

**Erresuma Batua, 2021 / 114' / Lucile Hadzihalilovic**

Jatorrizko bertsioa gaztelerazko azpitituluekin.

Versión original con subtítulos en castellano

Albert-en lana Mia, izotzezko hortzak dituen neska, zaintzea da. Mia ez da bere etxetik sekula ateratzen eta pertsianak beti ditu jaitsita. Maisuak aldiro-aldiro deitzen du Miari buruz galdetzeko, baina egun batean Albertek agindu hau jasotzen du: neska prestatu behar du, kanpora ateratzeko.

El trabajo de Albert es cuidar a Mia, una chica con dientes de hielo que jamás sale de su apartamento, donde las persianas siempre están cerradas. El Maestro llama con regularidad para preguntar por Mia, hasta que Albert recibe la orden de preparar a la chica para que se marche.



# ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN:

# 30 FANTARTISTAS

## *FORMARTE: ESCUELA DE ARTE SIN BARRERAS*




**Apirilak 30 - Maiatzak 30**
**30 Abril - 31 Mayo**

**Vía de Fuga (Gordóniz, 5)**

NAHIARTE desgaitasun psikikoa edo intelektuala duten pertsonentzako sormen artistikorako espazioa da, FORMARTE-Escuela de Arte sin barreras ekimenak bultzatua. Bertako 15 artistek haien obrak aurkeztuko dituzte "FANTartistas" erakusketan, FANT-Bilboko Zinemaldi Fantastikoak 30 urteetan zehar aurkeztu dituen kartelak erreferentziatzen dituzten obrez osatuta egongo dena.

NAHIARTE es un espacio de creación artística para personas con discapacidad psíquica o intelectual de FORMARTE-Escuela de Arte sin barreras. 15 de sus artistas participan en la exposición "FANTartistas", compuesta por una selección de obras que referencian los carteles que FANT-Festival de Cine Fantástico de Bilbao ha presentado a lo largo de sus 30 años de andadura.




Erakusketaren irekiera apirilaren 30ean izango da, eta horren ostean, *Astearte zonbia* ospatuko dugu, Lourdes Madow DJ-aren erritmoan, Via de Fugan, 21:30etan.

La exposición se inaugurará el día 30 de abril y, posteriormente, tendremos *Sesión martes zombie,* al ritmo de Lourdes Madow DJ, también en Vía de Fuga, a las 21:30 h.

# PROIEKZIOA:

# DILILI PARISEN




**Maiatzak 2 Mayo - 17:30**

**Centro Municipal *Barrainkua* Udaltegia**

**Frantzia, 2018 / 95' / Michel Ocelot**

Jatorrizko bertsioa euskarazko azpitituluekin.
Versión original con subtítulos en euskera.

6 -12 urteko bitartekoentzat.
Recomendada de 6 a 12 años.

Dilili, Kaledonia Berritik Frantziara iristen den 6 urteko neska da. Bere lagun banatzailearekin, *Belle Époqueko* Parisen neska gazteen bahiketa misteriotsu batzuk ikertzen ditu. Abenturaz beteriko Paris onirikoan, hainbat pertsonaia ospetsu eta interesgarriekin topo egingo du, eta pista lagungarri ugari emango dizkiote neskak aurkitzeko.

Dilili es una joven de 6 años que llega a Francia procedente de Nueva Caledonia. Con su amigo repartidor, investiga unos misteriosos secuestros de jóvenes en el París de la *Belle Époque*. En un París onírico y lleno de aventuras, se encontrará con varios personajes famosos e interesantes que le darán numerosas pistas para ayudarle a encontrar a las chicas.



# ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN:

# TOLKIEN-EN MUNDUAK: HOBBITON LURRALDEA EZAGUTUZ




**Maiatzak 2 - 20 Mayo**

**Biblioteca *Begoña* Liburutegia**

FANT Bilbao Fantasiazko Zinemaren jaialdia dela eta, Begoñako Udal Liburutegiak J.R.R. Tolkien idazleari eta bere literatur lan zabalari buruzko erakusketa aurkeztuko du. Azken urteotan iruditeria horrek zineman eta komikigintzan izan duen islada ere eskainiko du. Erakusketa maiatzaren 2tik 20ra arte bisitatu ahal izango da. Maiatzaren 15etik aurrera, erakutsitako liburuak, komikiak eta filmak maileguan etxera eraman ahal izango dira, liburutegiko txartelaren bidez.

Con motivo de la celebración del Festival de Cine Fantástico FANT Bilbao, la biblioteca municipal de Begoña presenta una exposición sobre el escritor J.R.R. Tolkien y su extensa obra literaria, así como el reflejo que todo este imaginario ha tenido en el cine y en el cómic en estos últimos años. La muestra puede visitarse del 2 al 20 de mayo, e incluye libros, cómics y películas que podrán llevarse en préstamo, con el carnet de la biblioteca, a partir del 15 de mayo.

**ERAKUSKETA** / EXPOSICIÓN:

# ROBOT DREAMS: AMETS BAT MARRAZTEN

## DIBUJANDO UN SUEÑO



**Maiatzak 2 - 15 Mayo**

**Centro Municipal *Begoña* Udaltegia**

Bilboko Zinemaldi Fantastikoak, FANT BIlbaok, 30. urteurrenean, ROBOT DREAMS filmaren sorkuntza-prozesuari eskainitako erakusketa bat, filmaren arte-zuzendari José Luis Agredak omisariatua; ibilbide bat Pablo Bergerrek zuzendutako eta Sara Varon ilustratzaile iparramerikarraren nobela grafiko homonimoan inspiratutako animazioko harribitxi honen sorkuntza-faseetan zehar.

Zinemako animazioaren eta, bereziki, Robot Dreams filmaren mundu liluragarriaren zirrikituak ezagutzera emateko erakusketa bat.

El Festival de Cine Fantástico FANT Bilbao, en el año de su 30 aniversario, presenta esta muestra dedicada al proceso creativo de la película ROBOT DREAMS, comisariada por su director de arte, José Luis Ágreda. Se trata de un recorrido por las diferentes fases de la creación del mundo de esta joya de la animación dirigida por Pablo Berger e inspirada en la novela gráfica homónima de la ilustradora norteamericana Sara Varon.

Una exposición para desvelar los entresijos del siempre fascinante mundo de la animación en cine y de la película ROBOT DREAMS en particular.

**KONTZERTUA** / CONCIERTO:

# SKIMALES KRUEGER PARTY



**Maiatzak 2 Mayo - 20:00**

**Bilborock**

SKIMALES, “Zure talde kakatsu gogokoena”, FANTen 30. urteurrenarekin bat egingo du barrez eta beldurrez lehertzeko kontzertu batekin. Okasiorako jantzita, rock komikoko talde bilbotarrak bere greatest hits -ak errepasatuko ditu “SKIMALES KRUEGER PARTY” jaialdian. Bere kantu originalek, eta bere letra aldaketa dibertigarriek, jaialdiko ikusleen gozamenerako eta oroimenerako izango den gau ganberroa ekarriko dute.

SKIMALES, “Tu grupo de mierda favorito”, se suma al 30 aniversario del FANT con un terrorífico y desternillante concierto. Vestidos para la ocasión, la banda bilbaína de rock cómico repasará sus greatest hits en la “SKIMALES KRUEGER PARTY”. Sus temas originales, y sus divertidos cambios de letra, harán las delicias del público del festival en una noche gamberra para el recuerdo.

# TAILERRA / TALLER:

## APOKALIPSI KLIMATIKOA: ZINEMAREN BIZIRAUPENERAKO ESKULIBURUA

## APOCALIPSIS CLIMÁTICO: MANUAL DE SUPERVIVENCIA DE CINE



**Maiatzak 4 Mayo - 12:00**

**Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao,**
**Sala *Bastida* Aretoa**

**Gidaria / Facilitador:** Eneko Muruzabal Elezcano

**Iraupena / Duración:** 90’

Gidoilariei, zuzendariei eta ekoizleei eta interesa dutenei zuzendua.

Dirigido a profesionales del guion, la dirección y la producción y público interesado.

Gaur egun, zinemak, industria gisa, aurre egin behar dio bere ingurumen-inpaktua murrizteko erronkari produkzio-prozesuan zehar, bere emisioak minimizatzeko eta baliabideen erabilera optimizatzeko modu berritzaileak bilatuz. Aldi berean, gizartea ingurumen-erronkez gero eta kontzienteago bihurtzen denean, zinema tresna indartsu gisa agertzen da larrialdi klimatikoari aurre egiteko eta jasangarritasuneranzko mentalitate-aldaketa katalizatzeko. Espiritu horretan proposatzen dugu “Apokalipsi klimatikoa: zinemaren biziraupenerako eskuliburua” tailerra, FANT Bilbao 2024 zinemaldiaren programazioaren barruan.

En la actualidad, el cine, como industria, se enfrenta al desafío de reducir su impacto medioambiental durante el proceso de producción, buscando formas innovadoras de minimizar sus emisiones y optimizar el uso de recursos. Al mismo tiempo, cuando la sociedad se vuelve cada vez más consciente de los retos ambientales, el cine emerge como una poderosa herramienta para abordar la emergencia climática y catalizar un cambio de mentalidad hacia la sostenibilidad. Con este espíritu proponemos el taller “Apocalipsis climático: manual de supervivencia de cine” dentro de la programación del festival de cine FANT Bilbao 2024.



# FANZINEAREN AURKEZPENA PRESENTACIÓN DEL FANZINE:

## ASIAN FANTASTIC MAGAZINE




**Maiatzak 5 Mayo - 12:00**

**Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao**
**Sala *Bastida* Aretoa**

**Felipe Múgica,** Óscar Salazarren aurkezpenarekin

**Felipe Múgica,** con la presentación de Óscar Salazar

*Asian Fantastic Magazine*, bere edukiak ekialdeko jatorria duen zinema fantastikoan soilik oinarritzen dituen fanzine bakarra. Felipe Múgica barakaldarraren eskutik, hiru zenbaki betetzen dituen bere argitalpenari esker, generorik urrun eta ezezagunena, exotikoena eta harrigarriena ezagutuko dugu, eta bere aldizkariaren eduki nagusiei begiratuko diegu.

*Asian Fantastic Magazine*, el único fanzine que centra sus contenidos en exclusiva en el cine fantástico de procedencia oriental. A cargo del barakaldés Felipe Múgica, descubriremos el género más lejano y desconocido, más exótico y sorprendente gracias a su publicación, que cumple ya tres números, y echaremos un vistazo a los contenidos principales de su revista.

# FANT 30 EDIZIOKO *EUSKARAZKO GENERO FANTASTIKOKO FILM LABURREN EKOIZPENA BULTZATZEKO LAGUNTZAREN ONURADUNA AUKERATZEKO* PITCH-A

## PITCH PARA LA SELECCIÓN DEL PROYECTO GANADOR DE LA *AYUDA PARA IMPULSAR LA PRODUCCIÓN DE CORTOMETRAJES DE GÉNERO FANTÁSTICO EN EUSKERA*

**Maiatzak 7 Mayo - 12:00**

**Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao, Sala *Bastida* Aretoa**

FANT Jaialdiaren 30. edizio honek berrikuntza bat ekarri du: *euskarazko genero fantastikoko film laburren ekoizpena bultzatzeko laguntza,* 5.000 eurokoa. Jasotako lanen artean lehenengo hautaketa bat egin ondoren, Pitch saio honetan aurkeztuko dira laguntzaren onuradun izateko azken proiektu hautagaiak.

Esta 30ª edición FANT ha traído consigo una importante novedad: la *Ayuda para impulsar la producción de cortometrajes de género fantástico en euskera, dotada con 5.000 euros.* Tras una primera selección de los trabajos recibidos, en esta sesión Pitch se presentarán los proyectos que finalmente optarán a esa ayuda.

# AMAIERA JAIA

## FIESTA DE CLAUSURA:

## SAIO FANTASTIKOA:

# 2 MARY DJS TXUMARI DIYEIS




**Maiatzak 10 Mayo - 22:00**

**Sala *Azkena* Aretoa**

Dibertimendu soil bat bezala hasi zen, ia txantxa bat, baina *Txumari DJ*ak, *2 Many Djs*en parodia egiten duen izena, XXI. mendearen hasieratik ari dira deitzen dieten tokian pintxatzen. Koldo Serra (aka DJ PHIBES) eta Borja Crespo (aka BRUSKO InfraDJ) *Tupperware, Madklyn* edo *Maravillas Club* aretoa bezalako Malasañako gune mitikoetan "temazo" aukeraketan ibili dira, baita Sitges, Donostia edo *Tracking Bilbao* bezalako jaialdi espezializatuetan ere. Honez gain, programatuak izan dira *Fever, Bilborock, Nasti edo Independance Club*-en, besteak beste... Bere saioek rock, indie, electro, 80ko musika eta bizarradak nahasten dituzte; hit handiak ikus-entzunezkoen keinuekin uztartuz, zinema eta bideoklip zuzendari gisa egin duten ibilbide luzearen erakusgarri. Geldialdi post-pandemiko baten ondoren, FANTen itxiera-saioa haien platereetarako itzulera izango da.

Empezó como una simple diversión, casi una broma, pero *Txumari DJs,* nombre que parodia a los *2 Many Djs* (años luz), llevan pinchando donde les llaman desde principios del siglo XXI. Habituales de sitios míticos de Malasaña como el *Tupperware, Madklyn* o la sala *Maravillas Club,* Koldo Serra (aka DJ PHIBES) y Borja Crespo (aka BRUSKO InfraDJ) han seleccionado temazos para festivales especializados como el de Sitges, San Sebastián o *Tracking Bilbao,* y han sido programados en *Fever, Bilborock, Nasti, Independance Club...* Sus sesiones mezclan rock, indie, electro, 80s y bizarradas; grandes hits con guiños al medio audiovisual, dada su amplia trayectoria como directores de cine y videoclips. Tras un parón post-pandémico, la sesión de cierre del FANT es su esperada vuelta a los platos.

# FANT

30 | BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA
FESTIVAL DE CINE FANTÁSTICO DE BILBAO
BILBAO FANTASY FILM FESTIVAL

fantbilbao.eus

Bilbao